AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

1277

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 21ekoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Eva Eugenia Alonso Ibáñez andrea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkariaren lanpostutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Eva Eugenia Alonso Ibáñez andrea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkariaren lanpostutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea (kodea: 520010; dotazioa: 177).

Bigarrena.– Lanpostutik kentzeak 2013ko martxoaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arkauti, 2013ko otsailaren 21a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.